

## *Interesatzen zaizu Lanbide Heziketako ikasleei zure ekonomia sozial eta solidarioko enpresan praktikak egiteko aukera ematea?*

Modu horretan, praktiketako ikasleei ekonomia sozial eta solidarioa zer den bertatik bertara ikusteko aukera emango diezu.

Ikasleek egingo dituzten jardueretarako profil gaitua izango dute; izan ere, praktikak ikasketen amaieran egiten dira. Horri esker, beren gaitasun eta ezagutza eguneratuak jarriko dituzte zure erakundearen esku.

Laburbilduz, hezkuntza-esparruaren eta enpresaren egiazko ingurunearen arteko lankidetzeta mota bat da, zeinetan batzuk besteengandik ikasten duten, eta alderantziz.

Ekonomia sozial eta solidarioa alternatiba erreal eta iraunkor gisa ezagutarazteko modu bat da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi erantsitako dokumentua edo idatzi helbide honetara: [ecosfron.euskadi@ecosfron.org](mailto:ecosfron.euskadi@ecosfron.org)

---

## *Nola egin LH-ko ikasleak jasotzeko?*

Heziketa-ziklo guztiek enpresako prestakuntza praktikoko fase bat izaten dute. Fase hori heziketa-zikloko lanbide-modulu guztiak gainditu ondoren egiten da. "Lantokiko Prestakuntza (LP)" esaten zaio.

**Ikastetxeko tutore bat eta lantokiko tutore bat** izendatzen dira.

### **Zer egin behar du zure erakundeko tutoreak?**

Lantokiko tutoreak, ikastetxeko tutorearekin batera, ikasleak beteko duen prestakuntza-programa zehaztu behar du, haren prestakuntza-curriculumarekin bat datorrela bermatuz. Horrez gain, ikasleari orientazioa emango dio eta haren kontsultak argituko ditu, ikastetxeko irakasle/tutorearekiko harremanak bideratuko ditu eta ebaluazioa egiten lagunduko duten balorazio-txostenak egingo

ditu. Horretarako, enpresara joateko eta prozesua baloratzeko nahiz gainbegiratzeko aukera emango dio ikastetxeko irakasle/tutoreari.

Ikasleen eta enpresaren artean **ez da egongo lan-harremanik, ezta beka-harremanik ere**. Eusko Jaurlaritzak kontratatuko aseguru baten bidez, ikasleek estalita izango dituzte istripu-arriskuak eta hirugarrenetikiko erantzukizun zibila.

Lankidetzaz gauzatzeko **hitzarmen edo akordio bat egingo dute** aldeek. Akordio hori bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta bi aldeak ados badaude edo horretarako arrazoi justifikatuak badaude.

### Noiz?

Lantokiko Prestakuntza ikasturtean zehar egiten da, normalean bi aldi hauetan: **martxotik ekainera** eta, ezohiko kasuetan, irailetik abendura.

Praktikak **400 ordukoak izango dira eta lanaldiak gutxienez 5 ordu eta gehienez 8 irauango du.**

Hemen Erdi- eta Goi-Mailako Heziketa-Zikloen eskaintza aurkituko duzu:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/eaeren-lhko-hezkuntza-eskaintza/web01-a2hlanhz/eu/>

Informazio gehiago nahi baduzu edo praktiketako ikasleak hartzeko interesa baduzu, idatzi helbide honetara:

[ecosfron.euskadi@ecosfron.org](mailto:ecosfron.euskadi@ecosfron.org)

